

“Geldialditxo bat gure bidean”

5. Urteurrena

3

Hemen gaude, horrela jarraitzen dugu.

5

Gogoratzuz: horrela sortu zen Foroa.

7

Gure aurkezpen txartela.

8

Gure izaera eta helburuak.

9

Nor gara?

11

Gauzatutako jarduerak.

14

Hainbat ohar ekonomiko.

16

Horrela ikusten dugu gure burua, horrela ikusten gaituzte

19

Etorkizunari begira.

HEMEN GAUDE, HORRELA JARRAITZEN DUGU

2001eko urtarrilean, urtea, mendea eta milurtea estreinatzen ari ginela, "Gogoia Foroa – Kristautasuna eta Gaur Egungo Mundua" elkarteak bere lehen bost urteak bete zituen.

Egindako lanari eta ibilitako bideari begira, apaltasun eta poztasunez esaten ahal dugu lehen bost urte hauek "emankorrak" izan direla. "Lehen" bost urteak dira –azpimarratzen dugu- jasotako harre-
rak eta babesak aurrera jarraitzera bultzatzen gaituztelako. Horretan gaude.

Zorionez, hasierako bultzatzaileentzat, hurbileko lagunentzat eta Forora jakinminez eta begikotasunez hurbiltzen diren borondate oneko anitz pertsonentzat, Foroa gaur egun, gure gizarte ingurunean bederen, errealitate ezaguna eta onartua da. Gaur egun gisa horretako ekinbideak ugariak dira toki askotan. Horrek aitorrarazten digu gurea ez dela aparteko ezer. Baina,aldi berean, mota horretako esperientzien ugaltzeak, alde zurretiko inolako akordiorik gabe, fenomeno honen gauzapenean arrazoiren bat egonen dela pentsatzera garamatza, sakoneko arrazoi indartsuren bat.

Eta neurri horretan, apaltasuna mantentzen dugunaldi berean, egiten dugunaren garrantzia eta esanahia aldarrikatzen ditugu. Izan ere, ezaguna denez, hortxe dugu berme gisa jendea biltzeko erakutsi dugun gaitasuna, ezen garai hauetan Foroak hasieratik eta gelditu gabe mantendu duena. Gaitasun horrek erreferentzigune bihurtu du Foroa gure testuinguru hurbilean, eta erreferentzia diren beste errealitateak bezala baloratua izan behar du.

Hainbat gauzetan Gogoia Foroa gainerakoak bezalakoa bada ere, besteetan ordea bereizten duen ezaugarri propioak agertzen ditu. Momentuz gutxi batzuk bakarrik nabarmenduko ditugu:

HEMEN GAUDE, HORRELA JARRAITZEN DUGU

- Etengabeko presentzia mantentzearen borondatea, urte osoan zehar burutzen diren programazioa eta jarduerak agertuz.
- Baliabide ireki bat edo interes orokorraren zerbitzura dagoen tresna bat izateko borondate sendoa, betiere Foroa horrela ulertzen duen giza-oinarri ugari eta zabalean errotua, kristaua zein soziala.
- Kristautasunaren eta gaur egungo munduaren arteko muga-eremuan kokatzeko erabaki sendoa. Ildo horretan edo, hobeki esanda, ikuspegi horretan kokatzen da Foroa, non humanoa den orok kristautasunari inporta eta galdegiten dion, eta kristau dena –edo edozein erlijio bizikizun egiazkoa dena- ezin daiteke ulertu alderdi humanoa eta bizitzaren erronkak eta pilpirak kontuan hartu gabe.
- Estilo baikor eta proposatzailea, kritiko eta zorrotza, elkarrizketan oinarritua, integratzaile eta irekia mantentzeko apustua.
- Joera laikal esplizitu eta nagusia. Asmo hori –pentsamendu erlijioso eta kristaua zabaltzearena, besteak beste- bere egituratze sozial eta juridikotik eta bere helburuen adierazpenean azaldua zegoen jadanik eta beren hiritar nortasunaz kontziente diren laikoak aurkezten dizkigu.
- Askatasun eta autonomia erantzulearen bilatzea, bere finantziaketari aurre egiteko konpromezuaz –eta orain arte lortu du-, bazkide eta lagunaren ekarpenen bidez.
- Eta, ikuspegi saihestezin gisa, pobreen, justiziaren eta elkartasunaren aldeko kezka.

Foroak nahi du bosgarren urteurren hau bidean geldialditxo bat egiteko aukera izatea. Egindakoaren balioa berreskuratuz eta bultzada bat emateko. Orain arte helburu batzuk bete dira. Beste batzuk neurri eskasean oraindik. Badugu egitekorik. Eta eraginkorrak izateko aukerak daude, guztion ahalegina dela medio. Horretan dihardugu.

Eta, hasierako hitz hauekin bukatzeko, gure eskerrik sakonena eta hunkigarriena parte hartu duzuen lagun guztiei, baita hilean behin edo noizean behin bakarrik hurbildu direnei, guztion artean Foroa errealitate bizia bihurtu baituzue.

GOGORATUZ: HORRELA SORTU ZEN FOROA

Idea noiz edo noiz agertu ohi zen lagun arteko solasaldietan. Baina 94ko ekainean proposamen formal gisa mahaigaineratu zen. Hasierako markoa Nafarroako Oinarrizko Kristau Elkarteek 80ko hamarkadatik indarrean duten Teologia Tailerraren kurtso bukaerako bilera izan zen. Testuinguru horretan, bukatzen zen kurtsoaren berrikuspena egin ondoren, eliz eta gizarte ikuspegiari begira eta, batez ere, guk eman behar genion erantzunari erreparatuz, Foro bat sortzearen ideia agertu zen.

Garrantzizkoa iduritzen zitzaigun hedatzen ari ziren joera neokontserbatzaile eta pensamendu uniformizatzaile berrien inpaktuari aurre egiten laguntzea; hor zegoen beste udaberriekin amets egin eta bizi ondoren, orainaldia udazken edo negu bat bezala sentitzen zutenen etsipena, itxaropen eza eta isolamendua; pertsona eta talde saiata, konprometitu eta berritzaileen isiltasuna edo isilik geratzeko beharra; krisialdi orokorren garaietan Elizak duen bere barrenean ixteko jarrera, ia eskusiboki edo nagusiki bederen bere barrenari bakarrik begiratzekoa edo, isilpeka, klerikalismo berri bat ezartzeko tentazioa...

Egokia ikusten genuen horiek eta beste xede batzuk burutzeko topagune bat, Foro bat. Kontua ez zen talde edo mugimendu berriarik sortzea, baizik eta, zegoenaren laguntzaz eta babespean, aipatutako xedeak burutzeko baliabide bat egituratzea. Zerbitzuak, modu ireki batez, eskaintzen ahal zituen: ziklo tematikoak, hitzaldiak, topaketa trinkoak, argitalpen laburrak... eta hasiera-hasieratik, argi eta garbi agertzen zen modu osasungarri eta baikorrez askatasun eremu berri bat lortu nahi zela, aurrez-aurreko oposizio publikoa egin gabe, proposatzaileagoa ihardukitzailea baino, elkarrizketan eta eztabaida kritikoan oinarritua eraso deskalifikatzaile eta baztertzailerean erori gabe.

GOGORATUZ: HORRELA SORTU ZEN FOROA

Tailerreko kideek ideiak zentzua eta aukerak bazituela pentsatu zuten; baina ideiarene jasotzaile, bultzatzaile eta sostengatzaile izango zirenen baieztapen eta bermeak ziurtatu behar ziren. Horretarako Komunitateetan, Parrokietan, mugimendu Apostolikoetan, kristau taldeetan, hurbileko lagun eta jendeen artean... asmoaren berri zabaldu zen; horiek pentsatu eta iradokizunak proposatu behar zituzten. Lana burutzeko urte bateko epea markatu zen.

6

Jasotako erantzunen aurrean, eta gehienak baikorrak izanik, 95eko ekainean, aldez aurretik kontsultatuak izan zirenei jakinarazi zitzairen lan-talde bultzatzaile edo "fundatzaile"ko kide izan nahi zutenek izena eman behar zutela. Horrela, hurrengo sei hilabeteetan zehar, talde horrek Foroa egituratzeko eta sortzeko lanari ekiten dio -ordurako lan hori benetako agindu bat zen-, irauteko bermea ziurtatzeari begiraturaz. Lan horretan laguntza paregabea izan ziren toki desberdinetatik jasotako aholkuak.

Eta horrela, azkenean, 1996ko urtarrilean, Gogoa Foroak bere lehenbiziko agerpen publikoa egin zuen.

Gogoa Foroa

GURE AURKEZPEN TXARTELA

Izena bera ere aholku eta eztabaidarako objektua izan zen, hala nola aurkeztu eta gure burua ezagutzera emateko modua. Horren ondorioa da Foroak bere logotipo eta izena, izenaren zentzua, izaera eta helburuak aurkezteko atera zuen diptiko ederra.



7

"Pocas palabras hay tan ricas en significado entre los clásicos de nuestra literatura vasca (Dechepare, Axular, Oihenart, Leizarraga) como gogoa.

"Ezta nehor ere hain gaixtorik, zantibait aldiz, bere gaixtakerien utzeko gogoa ethortzen etzaikanik, eta zenbait desirkunde on ere izaiten eztuenik..."

Es la energía animica, moral. Es la sede del afecto, del agrado y del consuelo. Es la postura vital, la resolución de la voluntad, la facultad de discernimiento. Es el mundo interior. Es la fuente de la tensión al servicio del ideal humano. Es la sede de la ternura, de la compresión y la misericordia. El centro de la personalidad de donde brotan la energía, la vida, el calor y la ilusión Gure gogoa."

Ez erortzeko, eta eroriz gero ere, iaikitze erremedio handia da gogoa, gorondaten deliberamentua...

Nik hala nahi nuke, hala deliberratu dut, gogo hartu dut, har ezazu bada zuk er..."

Pedro de Axular.
"Gero"

Angel Goenaga

GURE IZAERA ETA HELBURUAK

GU GARENA

GOGOA Foroa, Kristautasuna eta Egungo Mundua, batipat emakumezko eta gizonezko seglaretaz osaturiko fededun talde batek bultzaturiko elkarte zibil bat da.

Erljioari eta Kristautasunari buruzko pentsamenduaren eta iritzia-
ren inguruan zerbitu bat bihurtu nahi dugu, Gizartearentzat orokorrean, baina batipat beronen atal bat diren kristautentzat.

8

Mundu duinago baterako, gizarte dinamikaren orientabidean parte hartu nahi dugu.

Justiziaren aldeko lanean egoera praktikoen inguruan entzun eta hausnartu nahi dugu (Nafarroan edota beste edonon).

Justiziaren aldeko apustu garbia eginik eta Fedea-Kultura ardatz gisa edukita, eztabaida kritikoa sortuko duen egoera oro sustatu nahi dugu. Hori dela eta gure Forora. hizlari kristauak eta kristauak ez direnak gonbidatuko ditugu.

Batez ere, oinarrizko gizarte eta kristau taldeen baitan aritzen direnen zerbitzura egon nahi dugu.

Hitzaldiak, eztabaida saioak eta jardunaldiak antolatuko ditugu eta gizabanakoei eta taldeei zuzenduriko argitarapen pedagogikoak kaleratuko ditugu.

Kristautasuna zuzenki gizartean isladatzearen, sor dezagun giza ekimen bat, bide batez, Elizaren barruan eremu zabalagoak ireki daitezuten eritzi publikoa azaltzeko.

Doktrinari dagokionez, kristauen Eliz Estatuari lotzen gatzazkio. Gure antolakuntza, funtzionamendu eta ekintzetan, nahiz gizartean, nahiz Elizan ditugun askatasun, eskubide eta betebeharrak hartzen ditugu irizpidetzat.

NOR GARA?

Normalean gustukoa dugu sigla bakoitza, erakunde bakoitza, ekimen bakoitzaren atzean nor dagoen ezagutzea. Gure kasuan, Foroaren sorrera azaldu ondoren, ez luke zentzu handirik izan inori protagonismo berezirik eskaintzea. Foroa ekimen kolektibo xume baten ondorioa izan da eta horixe izan nahi du. Badakigu jakin Foroaren arrakastak, neurri handi batean, talde-borondate hori mantentzean datzala eta horrela jarraituko du etorkizunean ere.

9

Horregatik esan beharko genuke Foroa bere partehartzaile saiatuak direla, bultzatzen duten kristau taldeak, bazkide laguntzaileak. Hala ere, eta lehen azaldu dugun bezala, badago bidegabeko jabe-
tzeak saihesten dituen agindua; izen batzuk aipatuko ditugu:

BAZKIDE FUNDATZAILEAK

JOSE MANUEL AMIGOT GRACIA	MARIA JESUS LEACHE ORBAICETA
MIKEL ARAMBURU ZUDAIRE	VICENTE MADDOZ JAUREGUI
PEDRO ARGUÑARENA OTAMENDI	JOSE JAVIER MENÉNDEZ MINA
JUAN ASTIARRAGA GOITIA	GUILLERMO MÚGICA MUNÁRRIZ
JOSE MARIA BERRO URIZ	ROBERTO OIZ IBARROLA
FRANCISCA BUENO VICENTE	MARIA ISABEL OLAZARÁN ARISTU
CONCEPCION CORERA OROZ	FCO. JAVIER PAGOLA LORENTE
JESUS ECHEVERRÍA ERRO	JOSE MIGUEL PEREZ ÁLVAREZ DE EULATE
JESÚS EQUIZA JIMÉNEZ	MARIA ISABEL TURIAS DANCAUSA
FERNANDO GARCÍA ECHEVERRÍA	JUAN PEDRO URABAYEN MIHURA
PABLO IBÁÑEZ OLCOZ	ALFONSO URIZ IBARROLA
JOSE MARIA IRIBARREN AGORRETA	MAIALEN VAZQUEZ TORRES
XABIER LASA GORRAIZ	

NOR GARA?

BATZORDE IRAUNKORRA

presidentea:	CONCEPCION CORERA OROZ
presidenteordea:	MIKEL ARAMBURU ZUDAIRE
idazkaria:	XABIER LASA GORRAIZ
diruzaina:	ROBERTO OIZ IBARROLA
1º Batzordekidea:	FCO. JAVIER PAGOLA LORENTE
2º Batzordekidea:	GUILLERMO MÚGICA MUNÁRRIZ

10

BAZKIDE LAGUNTZAILEAK

Orain arte, bazkide laguntzaileen kopurua 136koa da, fundatzaileak kontatu gabe. Horrek esan nahi du 161 ordaintzaile dau dela.



GAUZATUTAKO JARDUERAK

HITZALDIAK, MAHAINGURUAK, ZIKLOAK, IKASTAROAK

◆ JARDUEREN ZERRENDA 1996 - 2001 ◆

1996 URTEA

URTARRILA:

"Oraindik ba al dago erlijiorako tokirik?".
 ▶ JOSE MARIA MARDONES. Soziologian eta Filosofian Doktoa. Zientzi Ikerkuntzen Filosofia Institutuan ikerlaria.

OTSAILA:

"Sinestuna bai baina praktikalaria ez".
 ▶ ANDRES TORNOS. Soziologoa eta Madrilgo Comillas Unibertsitateko irakaslea.

MARTXOA:

"Emakumea gizartean eta Elizan: emakumeak eta gizonak berdintasunezko elkarte baterako bidean".
 ▶ MARGARITA PINTOS. Teologo feminista.

1996KO MARTXOAREN 12a:

"Eliza zertarako, berharstuaren zerbitzura ez badago".
 ▶ JACQUES GAILLOT. Frantziar Apezpikua. Evreux (Frantzia)-ko Apezpiku ohia. Parteniako Apezpikua.

APIRILA:

"Beheko intentsitatezko demokrazia baten aurrean".
 ▶ MARIA DOLORES OLLER. Abokatua. "Kristautasuna eta Justizia" erakundeko kidea.

MAIATZA:

"Ezkerra eta kristauak. Elkarguneak eta diferentziak".
 ▶ Mahaingurua: MILAGROS RUBIO: Batzarreko Zinegotzia Tuterako Udalbatzan. FELIX TABERNA: Nafarroako Ezker Batuko Koordinatzailea. PEDRO MANTEROLA: Arte Ederren Irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean. PATXI ZABALETA: Herri Batasuneko Foru Parlamentarioa eta GUILLERMO MÚGICA: Teologoa eta Gogoia Foroko bazkide fundatzailea.

URRIA:

"Emakumeek Biblia irakurtzen dugunean".
 ▶ MARIA DOLORES ALEIXANDRE. Teologoa, Idazkera Sakratu Irakaslea Comillas Unibertsitatean. Lan-jardunaldia (45 pertsona) "Bibliako Emakumeak, bideko lagunak" gaiari buruz.
 ▶ MARIA DOLORES ALEIXANDRE.

AZAROA:

"Lanaren kultura, langabeziaren gizartea".
 ▶ Mahaingurua: JESUS AZKONA (antropologoa), TXEMA BERRO (sindikalista), CARLOS REY (Gazte lanpostuen eta Entrepresa Sozial eta Solidarioen Bultzatzailea).

ABENDUA:

"Komunikazio alternatibazko esperientzia bat: Villa el Salvador, Hiri autogestionarioa. Lima-Peru".
 ▶ MICHEL AZKUETA. Villa el Salvador-eko Alkatea.

1997 URTEA

URTARRILA:

"Ipar-Hegoa harresia hautsi. Nazioarteko elkartasun sareak".
 ▶ RAFAEL DIEZ SALAZAR. Konplutense Unibertsitateko Soziologia Irakaslea.

OTSAILA:

"Jainkoarengan sinestea biktimen ikuspegitik".
 ▶ ION SOBRINO. Teologoa. Ertamerikako Unibertsitateko Irakaslea.

MARTXOA:

"Kultura Euskal Herrian, fedarentzako erronka".
 ▶ FELIX PLACER. Gazteizko Teologia Fakultateko Irakaslea.

APIRILA:

Zikloa: "Euskal Herriko kristauen ekarpena bakearen alde".
 Mahaingurua: "Bakea lortzeko oztopoak eta aukerak".
 ▶ XABIER ASKASABAR (Gesto por la Paz). JUAN ANTONIO MADARIAGA (Senideak) eta MAIXUX REKALDE (Elkarri).
 Hitzaldia: "Gogoetak bakerako bidean".
 ▶ GUILLERMO MÚGICA. Teologoa.

MAIATZA:

"Askapen Teologia, 25 urtetako bizitza eta gogoeta".
 ▶ JULIO LOIS. "Joan XXIII". Pastoralteko Institutu Goreneko Irakaslea.

URRIA:

"Txanpona, lana eta demokrazia. Euro-ren ondoren, zer?".
 ▶ JOAQUIN ARRIOLA. Ekonomia-Politika Irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean.

AZAROA:

"Komunikabideak: Errealitatea, Manipulazioa eta Kontsumoa".
 ▶ JOSE LUIS SANCHEZ NORIEGA. Pedagogoa, Zinema eta Kultura kritikaria.

ABENDUA:

"Erlijio Tradizioen Ekarpina Gizarte Tekniko Garatuentzat".
 ▶ MARIANO CORVI. Esadeko Irakaslea. (Empresen Kudeaketa Eskola Gorena).

1998 URTEA

URTARRILA:

"Bakerako Ahaleginetan".
 ▶ JOSE ELORRIETA Y RAFA DIEZ. ELAko Idazkari Nagusia. LABeko Idazkari Nagusia.

OTSAILA:

"Kultura Anitzeko Kristautasunerako bidean".

11



GAUZATUTAKO JARDUERAK

GAUZATUTAKO JARDUERAK

► **BEJAMIN FORCANO.** Teologia Moral irakaslea. Zikloa: “Sexualitateari buruzko Kristau Ikuspegiaren Berrikuspenua. Historia Arazo bat. Kristautasunaren plazeraren kontra gorrotoa. Sexu-etikaren berrikuspen historikoa eta suposizio antropologikoak”.

► **BENJAMIN FORCANO.** Teologia Moral irakaslea.

MARTXOA:
“Aita Santua Kuban: Eliza Katolikoa eta Iraultza Globalizazio Neoliberalaren Garaian”.

► **GIULIO GIRARDI.** Filosofia Politika irakaslea Sassarri-Zerdeinako Estatuko Unibertsitatean.

MAIATZA:
Hitzaldia: “Gazteria nafarroan. Nafarroako Gazteei egindako inkestaren emaitza”
“Gure burua horrela ikusten dugu”

► **GABRIEL HUALDE.** Soziologoa, Zuzenbide-Kriminologian Doktorea.
Mahaingurua: “Gure asmo eta xedeak”
Gazte Kristauen bizikizunak eta ikuspuntuak.

URRIA:
“Eta orain zer?
Ez eman treguarik bakeari”
► **MARIANO FERRER.** Kazetaria.

AZAROA:
“XXIgn mendea: Hezkuntzarako desafio berriak”.

► **GUILLERMO HERRERO.** Nafarroako Eskola Kontseiluko Presidentea.

ABENDUA:
“Erlijione krisia eta kristautasunaren etorkizuna”.

► **JUAN DE DIOS MARTIN VELASCO.** Salamankako Unibertsitateko Pastoralta Institutuko irakaslea.

1999 URTEA

URTARRILA:
“Bake prozesuaren bidean: Argiak eta itzalak”.

► **MARGARITA ROBLES.** Magistratua.

OTSAILA - ZIKLOA:
“Pobrezia munduan”

► **JAVIER IGUÍNEZ.** Ekonomilaria eta injenerua. Limako Unibertsitate Katolikoko Dekanoa.
“Askapen bide berriak”

► **CATALINA ROMERO.** Soziologoa eta Limako Unibertsitate Katolikoko Gizarte-Zientzien Saileko Buruzagia.

MARTXOA:
“Emakumeak: kulturartekotasuna eta genero-harremanak”

► **ADRIANA KAPLAN.** Gizarte Antropologian Doktorea eta Bartzelonako Ramon Llull Unibertsitateko irakaslea.

APIRILA:
Zikloa: “Pobreen aldeko aukera: Gaurkotatzea eta orientatze berriak”.

► **GUSTAVO GUTIERREZ.** Askapen Teologiaren sortzailea eta mundu mailako egile nagusienetakoa.

MAIATZA:
“Gizarte-politikak eta elkartasun-erakundeak: ikuspegi kritikoa”.

► **JOAQUIN GARCIA ROCA.** Soziologoa Valentziako Unibertsitatean eta El Salvador-eko Ertamerikako Unibertsitatean (UCA) irakaslea.

URRIA:
“Kristautasuna erlijioz beteriko baina erlijiorik gabeko, idolatriazko eta injustiziazko mundu batean”.

► **JOSE IGNACIO GONZALEZ FAUS S.J.** Kataluniako Teologi Fakultatean eta San Salvador-eko UCA-n irakaslea eta “Cristianismo y Justicia” erakundearen akademi arduraduna.

AZAROA:
“Gatazkatik bakeraino”

► **JOSE IGNACIO LACASTA.** Zuzenbide-filosofia irakaslea.

ABENDUA:
“Gizaldekoko interbentzionismoa”

► **CARLOS TAIBO.** Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Zientzia Politikoa irakaslea.

2000 URTEA

URTARRILA:
“Bazterketazko gizarte baterantz? Joerak, eronkak eta aukerak”.

► **MANUEL AGUILAR ETA MIGUEL LAPARRA.** Teologian Doktorea eta Salamankako Unibertsitate Pontifikiko “Joan XXIII” Pastoralta Institutu Goreneko Kristologia irakaslea.

OTSAILA:
“Genero arazoa latinoamerikan eta latino-amerikar kulturetan”

► **CARMEN LORA.** Psikologo eta Pedagogoa “Paginas” aldizkari zuzendaria.

“Aldaketa erradikalak politikagintzan Hegoamerikako esperientziaren ikuspegiak begiratuak”.

► **ROLANDO AMES.** Politologoa.
Lima - Peruko Unibertsitate Kalolikoko irakaslea.

MARTXOA:
“Jesusen piztuera: harridura eta erronka”

► **JULIO LOIS.** Teologian Doktorea eta Salamankako Unibertsitate Pontifikiko “Joan XXIII” Pastoralta Institutu Goreneko Kristologia irakaslea.

APIRILA:
“Etika unibertsal bat bideragarria da?”

► **VICTORIA CAMPS.** Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Etika katedratikoa.

MAIATZA:
“Garapen orekua eta solidariorako bidean”.

► **JORGE REICHMANN.** Bartzelonako Unibertsitateko irakasle titularrak eta Madrilgo Carlos III.a Unibertsitateko irakasle bisitaria.

URRIA:
“Gizakiak eta kontzeptuak migrazio-politikan”.

► **ANTONIO IZQUIERDO.** A Coruñaiko Unibertsitateko Soziologia Katedraduna.

AZAROA:
“Harresia erori ondoren: Munduko hegonia lortzeko borroka berria”.

► **JOAQUIN ARRIOLA.** Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia Politika irakaslea eta Nazioarteko Lan erakundearen aholkularia.

ABENDUA:
“Etika, morala eta erlijioa milurte berriaren aurrean”. Javier sadaba.

► **JAVIER SADABA.** Madrilgo Unibertsitate autonomoko etika katedraduna.

2001 URTEA

URTARRILA:
“Gazteak eta erradikalatasunak. Gazteen lege penal berriari buruzko gogoeta batzuk”

► **JAUME FUNES ARTIAGA.** Psikologoa, Hezitzailea eta Kazetaria.

ARGITALPEN XUMEAK

◆ GOGOIA KOADERNOAK ◆

Nº 1
“Eliza zertarako, behartsuaren zerbitzura ez badago”.

► **JACQUES GAILLOT.**

Nº 2
“Kristauak Euskal Herrian. Bakearen aldeko ekarpen bat”. “Gogoetak bakerako bidean”.

► **GUILLERMO MUGICA.**

OTSAILA:
“Kristau bezala bizitzea gaur egun: erronka eta arazoa”

► **JUAN ANTONIO ESTRADA.** Jesuita, Granadako Unibertsitateko irakasle titularrak.

MARTXOA:
“Nazioarteko laguntza sistema krisian: GGKE-en eginbeharra”

► **JOSE ANTONIO ALONSO.** Madrilgo Complutense Unibertsitateko Ekonomia Aplikatu Katedraduna.

APIRILA:
“Gurutze eta piztuaren erronkak. Gaur egungo munduarendako galderak”

► **JOSE MARIA MARDONES.** Soziologian eta Teologian Doktorea. CSIC erakundeoko Filosofia Institutuko Ikerlaria.

MAIATZA:
“Erlijioa eta buruko osasuna”

► **VICENTE MADDOZ.** Mediku-Psikiatra.

EKAINA
“Galeanorekin eskuz esku”.

► **EDUARDO GALEANO.** Idazlea.



HAINBAT OHAR EKONOMIKO

HAINBAT OHAR EKONOMIKO

14

Gure diru egoera justu eta estua izan da, hasierako urte hauetan eginikoa eta hastapeneko asmoak betetzeko adinekoa izan bada ere. Oro har, maila altuago bateko ahaleginaren bat edo beste egiterakoan, ez da ekonomia izan geldiarazi gaituena. Izan ere bazkideen eskuzabaltasuna beti izan dugu lagun, egoki ikusten genuena egin ahal izateko.

Baina egia da bestalde, baita ere, baliabide urritasunagatik baldintza eskasetan lan egin behar izan dugula. Esate baterako, ez dugu toki bat izan askatasunez eta autonomiaz erabiltzeko; helbide soziala, erreferente-gunea, gure bilerak egiteko tokia, Foroak eskatzen dituen hamaika lanak egiteko lekua izanen litekeena. Orain arte, eta oraindik ere, utzitako toki batean gaude. Eta bene-benetan estimatu egiten dugu.

Nolanahi ere, nolabaiteko baliabide eskasia horri aurre egiteko dedikazio bereziz lan egin dugu, gure eskaintzak ongi neurtu, hautatu eta doitu behar izan ditugu eta, momentuz egin gabe utzi ditugu positibo eta desiragarri irizten genien proiektu batzuk.

Leku guztietan bezala, Bazkide Fundatzaileen aldirikako bilere-tan, Batzordearen eta, hala nola, Urteko Batzarretan kontuak eman eta zehazki azaltzen dira. Horrexegatik, ondoko zenbaki hauek ematerakoan bi helburu hauek ditugu:

ERAKUSTEA

- Ez dagoela deus musutruk, jarduera orok berekin dakarrela hainbat gastu ikusgai eta ikusezin.
- Bazkideen diru ekarpena handia izan dela.

15

Foroaren lagunak adoretzea hemengo bazkide egin daitezen, jadanik bazkide ez badira, eta, bazkide badira, beste batzuk bazkidezera gonbida ditzaten

SARRERAK URTEKO		GASTUAK URTEKO
1995 Bazk. fund. ekarpena.	350.000 pta.	
1996	1.581.121 pta.	1.520.245 pta.
1997	2.428.474 pta.	2.115.148 pta.
1998	1.644.239 pta.	1.541.400 pta.
1999	2.013.509 pta.	2.292.368 pta.
2000	1.614.976 pta.	1.907.600 pta.
2001	1.137.000 pta.	1.065.302 pta.
SARRERAK GUZTIRA: 10.769.325 pta.		GASTUAK GUZTIRA: 10.442.063 pta.

► **JARDUERA BAKOITZAREN BATAZ BESTEKO KOSTUA**

(Bidaiak, mantenua, egoitzaren alokaera, propaganda, diru-saria eta abar): 170.000 pta.

► **ARGITARATURIKO LIBURUXKA BAKOITZAREN**

BATAZ BESTEKO KOSTUA 270.000 pta.

► **GARAPEN BIDEAN DIREN HERRIALDEENDAKO ZUZENEKO EMARIA**

(El Salvador eta Perurako Jon Sobrino eta Gustavo Gutierrezen hitzaldien kariatara) 1.000.000 pta.

Atal honetako ondorio gisa, ohar bat. Gure iritziz urte hauetan eginikoarekin ditugun baliabideetatik dezente gaintik ibili gara. Berrito ere, elkartasun eta eskuzabaltasunaren mirariak gozatzen dugu. Espero dezagun baliabideen gehitzearekin erronka berriei aurre egin diezaiegun.

HORRELA IKUSTEN DUGU GURE BURUA, HORRELA IKUSTEN GAITUZTE

Azaleko ebaluazio gisa balio dezatela hitzok.

16

HONELA IKUSTEN DUGU GEURE BURUA

Bai 95ean egin eta “Ibiltzen hasteko zirriborroa” modu esanguratsuan deitzen genion barneko oharrean, bai geroagoko beste lantokumentuan, errealitatea aztertzerakoan, besteak beste, honako alderdi hauek nabarmentzen genituen:

- Albiste eta informazioz jositako kultura-egoera, non, halere, aldi berean ezagutzak ezdeustatu egiten baitira eta hartzaileek konpromisoari bizkar ematen baitiote. Hortaz, antzutasun-egoera.
- Anitzetan pragmatismotan babestu eta utopietatik ihes egiten duen gizarte postmodernoa.
- Gizarte laiko eta sekularizatuaren aurrerakadaren aitzinean maiz askotan zurturik eta kikildurik agertzen den kristautasuna (honen zati nabaria).
- Joera neokontserbadore kezagarriak indartzen dituzten hainbat izpiritualismo iheskor eta defentsiboen berragertzea.
- Kristautasunaren espresio publikoa oker eta erredukzionista, oro har, ikuspegi integralago bati ez dagokiona eta eliz elkartean dauden legezko sentipenen aniztasuna islatzen ez duena.
- Bizitza-aldaketa ekarriko lukeen eta garaiarekiko zein justiziarekiko konpromisoaren eta senidetasunaren iturria litzatekeen Jaungoikoarekiko esperientziatik aldentzeko isilpeko joera.

Aipatutako markoaren barruan Foroak, diren beste errealitate kristau eta sozialak agerrarazten saiatzearekin batera, ideia desberdinak topatzeko, trukatzeko eta hedatzeko gunea eskaintzen zuen. Jasotzaile posibletzat jotzen ziren, alde batetik, fedea era konprometituan bizi duten fededunak eta kristauak eta, bestetik, bilatzen eta mugan ari diren pertsonak, beti ere oso zentzu irekian.

HORRELA IKUSTEN DUGU GURE BURUA, HORRELA IKUSTEN GAITUZTE

Kide fundatzaileok uste dugu, oro har, Foroak erantzun egokia eman diela proposatutako xedeei eta berarengandik espero zenari.

Nolanahi ere, ez da inor Foroarekiko epaile kritikoago izan bere kide fundatzaileok baino. Gureari eutsiko diogu jakinki esanguratsua eta garrantzitsua izanagatik –bada izan-, zeregin orokorraren ikuspegiaren Foroa ekarpen txikia eta xumea baino ez dela.

Dena den, pozik gaude egindakoarekin. Halaber, egin dena ale desberdinek osaturiko iturritik uhar bakarraren antzera etortzeak poztu egiten gaitu. Positibotzat jo nahi dugu, urteotan egindako bidea aztertuta, Foroaren jarduera bakoitzaren batez besteko asistentzia: 300 eta 400 pertsona jarduerako, neurritz gainezka egin gabe. Gainera horri erantsi behar zaio, alde batetik asistentzia askotarikoa izan dela (adina, sexua, eremu sozial zein profesionalak, e.a.) jorratutako gaien arabera eta, bestetik, “militantzia” sutsua ematen duen maiztasun gogotsua erakutsi duen talde handia eta iraunkorra izan dela.

Hala eta guztiz ere, neurrizko pozak ez digu gure mugak ikustea eragozten: eskaintzak, parte hartzea, lanaren antolakuntza eta gure asmo batzuen eta hasierako helburuen artean oraindik dagoen aldea. Gure etorkizunerako begiradak horietako guztietako zerbaiti erantzunen dio azken txanpan.

HORRELA IKUSTEN GAITUZTE

Baiezta liteke kide laguntzaileei eta parte hartzaileei Foroaren gaineko iritzia eskatu zaien bakoitzean, balorazio ona jaso dela ia aho batez. Bere beharra eta egokitasuna azpimarratu dituzte. Bere estiloarekin bat etorri dira. Halaber, gorabeherak gorabehera, proposatutako gaiak, berauek garatu dituzten txostengileak eta jarduera bakoitzaren antolaketa “nota onarekin” pasatu dira.

Foroko aldizkako partaide batek haxe idatzi zigun arestian: “Deus baino lehen, zorionak Kristoren mezua gaurko gizakiarengan kulturizatzeagatik. Zuen lana irizpide zuzenez eta antolakuntza bikainez egin da, nire lanak bertaratzen utzi didan hitzaldi bakanetan, bederen. Beraz, eutsi eta aurrera!” Ohar azkar eta adiskidetsu batean ulergarriak diren adierazpen eta egitura zehaztugabetasunetatik haratago, ideia garbia da.

17

HORRELA IKUSTEN DUGU GURE BURUA, HORRELA IKUSTEN GAITUZTE

Horrelako adore-mezua aski orokorra izan da pasa diren bost urte baino gehiagotan zehar. Are gehiago, esan liteke kritikak berezko kritika baino gehiago gauzak hobetzeko iradokizun positiboak izan direla. Hauen artean, besteak beste, hiru esparru nabarmenduko nituzke:

Hainbat iradokizunek eskatu digute guk beti gogoan izan duguna eta Foroan izan ez bada, gure nahi ezagatik edo gure epelkeriagatik inolaz ere izan ez dena. Emakume txostengileen kopurua areagotzeaz ari gara. Izan ere, gure programazioari begiratuz gero, gizon eta emakumeen artean alde dezente dago. Halere, nabarmendu behar da, koalitateari erreparatzen jarrita, zenbait emakumeren mintzaldiek beren unean munta eta zirrara handiak izan zituztela.

Beste iradokizun batzuek gai edo interesgune berriak proposatzen zituzten: ekologia, etxebizitza eta hirigintza, erlijio-aniztasuna, fedearen transmisioa, hainbat gai sozial... Kide batek zioenez, "edo zein gaik balio dezake. Beti ere, pertsonaren, nahi izatearen ahalmenaren, fedearen eta askatasunaren alde eta aldetik ikusita", hori baita bultzatu nahi duguna.

Azkenik, beste zenbait ekarpenek Foroan azaldu eta jorratu dena nolabait sakondu eta luzatzea proposatu dute. Kontua da nola egin hori Foroak duen zerbitzu-izaera hutsari uko egin gabe eta nola eskuratu horrek behar dituen gutxienezko baliabide eta bitartekoak.

ETORKIZUNARI BEGIRA

Foroa bezalako errealitate batean, etorkizunaz aritzekotan, ez dugu ahantzi behar denak duela bere unea eta garaia eta, sortu zireneko baldintzak direla medio, errealitate batzuek beste batzuek baino gehiago, berekin dutela bere iraungipen data. Horregatik Foroa bizi dugu bere egokiera eta paperaren kontziente, baina, aldi berean, deslotura osasungarrizko eta beharrezko jarrera batez. Hala ere, badugu lanean segitzeko asmo sendoa bizitzak, komunitateek eta taldeek eskatzen duten bitartean.

Berriz esan beharra dago, bestalde, Foroak ez diola ez ezeri ez inori lekua kendu nahi. Bere ideia eta borondatea izan da beti, eremu desberdinetan, erresistentzian, mugitzen, eta dudatan bizi direnendako tresna txikia, zerbitzua izatekoa. Hala ere, funtsezko aukera eta orientazio guztiekiko errespetu osoan, ez dio bere uste sendo eta inspirazio kristauari uko egiten.

Lehenago aipaturiko bi puntu horiengatik Foroak erne egon behar du eta, ohiko eta noizbehinkako partehartzailleengandik hurbil egon ere. Hori izan behar du bere lehentasuna. Baina, jarduerak oso desberdinak eta baliabideak oso urriak izateagatik gurea bezalako Foro bat arront mugatu gelditzen da. Eskariari erantzun nahian ez dugu eskaintzaren sakabanaketan erori behar. Ezinbestez, badira Foroak ezin eman ditzakeenak. Baina hauxe izan daiteke, hain zuzen ere, egokiak ez ezik, beharrezkoak diren jarduerak antolatzeako baldintza.

Gauzak horrela, laburbilduz eta gerora begira, lau puntu hauek nabarmendu nahi ditugu:

- 1 Orain arte eginikoari jarraikiz, egunerokotasun, kalitate eta seriotasunezko eskaintzari eustea.

ETORKIZUNARI BEGIRA

- ② Bazkide berriak sartzea bultzatzea. Besteak beste, baliabideak ere gehitzeko, eta horrela Foroaren lan eta posibilitateei hobeki erantzuten ahal diezaiegun.
- ③ Eskaintza hobetzea. Hiru hauei erreparatzen diegu batez ere:
 - Gehiago bultzatzea, noizbait egin izan dugun beste jardue-
ra motaren bat: ikastaro trinkoak, mahainguruak...
 - Txostenak eta Foroaren materialak kaleratzeko modu des-
berdinak bilatu eta erraztea, nahi duen orok eskura izan
dezan, hots, idatzizko, ikus-entzunezko bitarteak eta informa-
tikoak.
 - Emakume txostengileen oreka lortzeko ahalegina handitzea.
- ④ Hitzaldien ondotik ere, hilabeteko beste une batean, nahi duena-
rentzat, bildu eta Foroan azaldutakoaren gainean mintzatu eta
hausnartzeko aukera ematea. Foroak bere izaerari era eraginko-
rragoan eutsi diezaiola eta gehiago inplikatzeko gaituzten haus-
narketa eta hartu-emanen bila.

Azken xehetasun bat oraindik. Lagun eskuzabal batek berea den etxabea eskaini berri digu. Hortxe ezarriko dugu Foroaren egoitza. Azpiegitura horrekin zenbait gauza hobetu eta beste batzuk egingarri izanen ditugulakoan gaude.